


Andra Mari Abesbatzaren aurkezpen argazki berriak

Andra Mari Abesbatzak berriro egin ditu abesbatzaren aurkezpen argazkiak. Orain arte izan duguna, Fatimako Andra Mari elizan Zarrantz argazki etxeak egina, urte batzuk zituen eta eguneratu beharrean ginen. Horretarako Poly argazki etxera jo dugu eta udazkenean, berariazko prestaketa lanak egin ondoren, Erreterriako bi leku esanguratsuetan eta Kursalen atera ditugu. Hemen dituzue, hemendik eta datozen urtetan, Andra Mari Abesbatzaren aurkezpen txartel moduan erabiliko ditugun argazkiak, eta horren ondoan gure historiaren parte den lehenagokoa. Esakune zaharrak dio Irudi batek hamaika hitz baino gehiago adierazten duela. Argazki hauek gure izaeraz mintzatzen dira, beraz abesten dutela esan dezakegu, ezta?



5

Erreterria
2012ko negua
BERRIPAPERA

NEGUKO AGENDA

MARTXOaren 8

Andra Mari Euskalduna Jauregian (Bilbo)
Bilboko Orkestra
Sinfonikoaren denboraldia
BOSeK antolatua

MARTXOaren 9

Andra Mari Euskalduna Jauregian (Bilbo)
Bilboko Orkestra
Sinfonikoaren denboraldia
BOSeK antolatua

MARTXOaren 10

Oreretak material musikal pedagogikoa grabatuko du Aizkorri Everest Argitaletxeak antolatua


MARTXOaren 15etik 18ra

Oinarri Manlleura (Katalunia)
Manlleuko Musika Eskolak antolatua

APIRILaren 21a

Andra Mari Euskadiko Orkestraren egoitzan (Miramon)
13. Matinée. Tronpen saila Euskadiko Orkestrak antolatua

MANUEL LEKUONA SARIARAKO REMIGIO MENDIBURUK EGINDAKO BRONTZEZKO ESKULTURA



JOSE LUIS ANSORENAK Manuel Lekuona Saria

Eusko Ikaskuntzaren Batzorde Iraunkorrek joan den abenduaren 22an Iruñean egindako bileran, Jose Luis Ansorena Miranda Andra Mari Abesbatzaren sortzaile eta zuzendariari Manuel Lekuona Saria 2011 ematea erabaki zuen.

Manuel Lekuona saria 1983an sortu zen euskal kulturako pertsonen interes handiko obra osoa (opera omnia) aitortzeko. Jose Luis Ansorena sari garrantzitsu hau eskuratzen duen zarpigarren gipuzkoarra da. Lehenago Jorge Oteiza, Jose Miguel de Azaola, Justo Garate, Bernardo Estornes, Carlos Santamaria, Jose Maria Jimeno Jurio, Eugene Goyheneche, Micaela Portilla, Elias Amezaga, Menchu Gal, Montxo Armendariz, Jose Antonio Arana Martija eta Manuel Lekuona bera izan dira irabazleak, besteak beste.

Garatu duen kultur jarduera zabalaren artean, Jose Luis Ansorena ikertzaile, musikagile, organo-jole eta koro zuzendari lanetan nabarmentzeaz gain, euskal musika ondarea babesteko eta hedatzeko instituzioen eta jardueren sustatzaile aparta izan da. Musikaste eta Eresbil sortu zituen Andra Mari Abesbatzaren eskutik.

Aurreko sariduna, Jose Antonio Arana Martija gernikarra Jose Luis Ansorenaren lagun handia izan zen eta Eresbil artxiboaren kolaboratzailea, bertan laga baitzituen, bizirik zela, bere liburutegi oparoa eta musika fondoa.

Manuel Lekuona Saria Remigio Mendiburuk brontzez egindako eskultura da eta jendaurrean emango zaio uda baino lehenago. Andra Mari Abesbatzaren familiak bat egingo du Donostian eta Erreterrian aurreikusten diren ekitaldiekin.

(Jon Bagües)

A.M.A.aren FITXA Opera kantari



Andra Mari Abesbatzak ABAOren 30. Opera Jaialdian parte hartzeko gonbitea jaso zuen 1981ean. Eskaintza honek Alfredo Kraus, Mariella Devia, Vicente Sardinero eta Giovanni Foianirekin Bizeten "Les pêcheurs de perles" interpretatzeko aukera eman zion. Hala ere, gonbite arraroa zen honako hura, ABAOk bere abestalde propioa zuelako eta 30. ekitaldira arte ez zuelako beste talderik parte hartu izan jaialdi honetan. Andra Mari Abesbatza, beraz, izan zen lehen gonbidatua Bilboko Opera denboraldian. 1981eko irailaren 6a izan zen. Guzti hau abestaldeak Bizkaian zuen ospearen ondorio zen.

BABESLEAK



Erreterriko Udala
Ayuntamiento de Erreterria



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Urte bete betea harrobiko abesbatzentzat



Orereta Txiki 2011



Musika Tailerra 2011



Orereta Nafarroako ekimena 2011



Orereta Txiki. Orereta Gabon Sariketa 2011

Andra Mari abesbatzako harrobi taldeek, 2011. urteari amaiera ezin hobea eman zioten, abenduak 30ean Errenteriako Gabon Sariketa Probintzian, bai Oreretak bai Orereta txikik urrezko garaikurrak lortuz. Aipatzekoa da, 8 – 10 urte bitarteko abeslari ez osatu dagoen Orereta txiki abesbatzak, lehen aldiz urrezko puntuazio hau lortu duela.

Harrobi taldeek, 2012a ere urte bete betea dute. Hurrengo lerroetan horren lekukoa irakurriko duzue.

Aizkorri Everest argitaletxeak, bigarren aldiz, bere material musikal pedagogikoa grabatzeko ardura Orereta abesbatzari eman dio. Grabaketa, Elkarrek Donostian duen grabaketa estudioan burutuko da.

Martxoaren 15-19an, Oinarri abesbatzak Manlleu, Kataluniako herria emanaldia izango du, Manlleuko musika eskolako abesbatzarekin burutuko duen elkar trukaketaren barruan. Apirilean, gazte katalanak Errenterian hartuko ditugu.

Maiatzaren 19an, Orereta abesbatzak Musikasteko amaiera kontzertuan abestuko du. Krater ensemble-rekin batera, Francisco Escuderen "Mitoen Sinfonia" eta David Azurzaren estreinu bat abesteko aukera izango dugu.

Orereta txikik, Oñatiko "Ganbara txiki" abesbatzarekin elkar trukaketa burutuko du, bai Oñatin bai Errenterian, bi kontzertuetan parte hartuz.

Azaroan, Orereta abesbatzak Albert Alcaraz konpositorearen "Zelaietakua" lanaren estreinaldia burutuko du Xexili kontzertu egunean.

2011. urtean Castelnaudaryko jaialdian, "Altensteig Children Choir" eta Orereta Abesbatzak elkar ezagutu zuten, eta sortu zen harreman onaren ondorioz, aurretik bi abesbatzak elkar trukaketa egingo dute. Uztailean Alemaniako abesbatzako partaideak Errenterian izango ditugu. Abenduak 6ean, Altenstain-eko gabon kontzertua Orereta abesbatzaren esku egongo da.

Azkenik, urteroko kurtso amaiera eta gabon kontzertuez gain, Errenteriako ikastetxe guztiekin azken urtean Andra Mari burutzen duen abesbatza proiektua aurretik ere martxan dugu. Harrobi taldeko abeslariak, eskoletako haurrekin batera kantuak landu eta emanaldiak eskainiko dituzte, guretzat garrantzi berezia duen ekimenean.



Argazkia: Carlos Choin. "Festival Internacional de Música y Danza de Granada 2010".

Andra Mari con la Orquesta Sinfónica de Bilbao

La Orquesta Sinfónica de Bilbao ha programado en su presente temporada los Gurre-Lieder (Canciones de Gurre) de Arnold Schönberg (Viena, 1874 – Los Angeles, 1951).

En este año 2012 la BOS celebra su Noventa Aniversario, y con este motivo ha incluido en la programación esta colosal obra. La ejecución de los Gurre-Lieder requiere una amplísima plantilla instrumental y coral, por lo que sus lecturas son muy poco frecuentes.

La ficha artística de los conciertos, que tendrán lugar en el auditorio del palacio Euskalduna el 8 y 9 de marzo, presenta los siguientes solistas: Anne Swanewillms, soprano (Tove); Torsten Kerl, tenor (Waldemar); Lilli Paasikivi, mezzosoprano (Waldtaube); Jon Frederic West, narrador; Arnold Bezuyen, tenor (Klaus-Narr) y Fernando Latorre, barítono (Bauer).

La participación coral estará representada por el Coro Easo en formación mixta, el Coro Araba y Andra Mari Abesbatza. Un total de 160 cantores acometerán el muy exigente papel coral que contiene la obra.

Solistas, Coros y Orquesta estarán dirigidos por Günter Neuhold, titular de la Sinfónica de Bilbao.

La obra está basada en la traducción al alemán por Robert Franz Arnold (1872-1938) de textos del poeta danés Jens Peters Jacobsen (1847-1885). De estética postromántica con gran influencia de Wagner y Mahler, constituye un verdadero punto de partida del compositor en la etapa que le llevó a la creación del dodecafonismo.

Schönberg comenzó la composición en 1900, como versión de canto y piano que en verano de 1901 empezó a instrumentar. Finalizó la orquestación, tras varios episodios de revisión, en 1911. Fue estrenada en Viena, con triunfal éxito, el 23 de febrero de 1913 bajo la dirección de Franz Schreker.